

Laudion, 2024ko apirilaren 4an

Gobernu Taldeak Udalaren kontratazio ereduarekiko duen gardentasun konpromisoa berretsi du

Eta objektibotasunaren alde egingo du toki-administrazioak gidatutako kontratazio-prozesu guztietan, bai zuzeneko kontratazioetan, bai Udalari zerbitzua ematen dioten enpresek egindakoetan

Laudioko ahalduentze-eskolako (Lezeaga Aretoa) arreta-zerbitzua arratsaldez gaitzeko premia ikusita, Gobernu Taldeak erabaki zuen lau hilabeteko esperientzia pilotu bat abian jartzea eta espazioa dinamizatzeaz arduratuko zen enpresa bat kontratatzea, udalerriko emakumeen ekarpenak eta iradokizunak aintzat hartzeko. Zerbitzua martxan jartzeko Udalak lau enpresa gonbidatu zituen parte hartzera. Kontratututako enpresak langileak hautatzeko prozesu bat garatu zuen, eta Udalaren eta Lanbideren ohiko komunikazio kanalen bitartez eman zen horren berri. Horrez gain, martxoaren 8ko Tokiko Gobernu Batzordean, Gobernu Taldeak langile berriak hautatzeko prozesua partekatu zuen. Eta kontratazioaren emaitza martxoaren 21ean egindako Zeharkako Politiken Batzordean jakinarazi zen.

Laudioko Gobernu Taldeak, EH Bildu-Omnia, gardentasunaren eta objektibotasunaren alde egingo du Toki Administrazioak gidatutako kontratazio prozesu guztietan, bai zuzeneko kontratazioetan, bai Udalari zerbitzua ematen dioten enpresek egindakoetan.